

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kontxa Laspiur Zabala

*Eibar, Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



Bergaran jaio zen, baina 4 urterekin etorri zen familia osoa Eibarrera eta eibartar sentitzen da (hizkeraz ere eibartarra da). Aita txistularia izan zen Eibarren errepublika garaian. Concharen anaia, Imanol Laspiur, euskaltzale ezaguna izan da. Concha ere euskaltzale amorratua izan da beti, eta 1963tik aurrera, euskarako irakaslea izan da. 1963an klaseak ematen hasi zen, erdi ezkutuan, Eibarko Kulturala elkartearen; gerora, hainbat urtez, AEK-ko irakasle izan da.

Zintak

AB-138

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte
- **Data:** 1990-01-01
- **Iraupena:** 41 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione

EIB-021

- **Proiektua:** Eibarko ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-11-28
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Euskara klaseak ematen

- **Erref:** AB-138/002
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:00:10. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Concha euskara klaseak ematen hasi zen Kulturalan eta egunean

hamalau-hamabost ikasle izaten zituen. Klub Deportiboan, La Salle, Ikastolan, Udaletxean eta AEKn ere eman izan ditu euskara klaseak. Hasieran, Euskara Batua ere ez zegoen eta erabiltzen zuen materialaz hitz egiten du.</p>

2. Barnetegiak

- **Erref:** AB-138/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:04:36. **Bukatu:** 00:06:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Udako barnetegietan egoten diren euskaltegiko ikasleek irailean maila hobea izaten dute. Euskaraz bizi dira bertan dauden bitartean. Etxe euskaldunetara joateko aukera ere izaten dutela azaltzen du Conchak.</p>

3. Betidanik euskaraz

- **Erref:** AB-138/004
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Eibarko ikasleek euskara maila ona izan arren, kalean ez dute euskaraz hitz egiten. Concha euskalduna da eta betidanik euskaraz egin izan du etxean. 25 urte eman zituen klaseak ematen eta omenaldi bat egin zioten grabaketa egin zen garaian.

4. Euskaltegiko eskolak

- **Erref:** AB-138/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:14:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Eskolak kanpoan ematen dituzte askotan, ikasleekin klase praktikoak egiten dituzte. Ohiturak ezagutu eta nagusiekin hitz egitera bultzatzen ditu ikasleak Conchak.</p>

5. Euskara eta nortasuna

- **Erref:** AB-138/007
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:14:25. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara ikastearen onurak eta aldeko argudioak ematen ditu Conchak. Gerra aurreko eta ondorengo euskararen egoeraz dihardu. Euskararen galeraren ardura edo errua euskaldunena izan dela azaltzen du. Nortasunarekin lotzen du Conchak euskara.

6. Euskara Batuaren beharra

- **Erref:** AB-138/009
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Euskalkien eta herriko hizkeren garrantzia eta Euskara Batuaren beharra azaltzen du Conchak. Ikasleekin euskalkia ere lantzen dute, maila handia dutenekin.</p>

7. Iparraldeko euskara

- **Erref:** AB-138/010
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:21:41. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Iparraldera txangoak egiten dituzte urtero. Maskaradak ikustera joan ziren eta Maulen egon ziren. Iparraldean Hegoaldean gaztelerarekin gertatzen den berdina gertatzen da Frantsesarekin. Bertako euskalkien arteko desberdintasunak eta euskararen egoeraz hitz egiten du Conchak.

8. Euskararen garrantzia

- **Erref:** AB-138/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen irakaskuntzaz eta gobernuaren aldetik hizkuntza eskakizun maila jaitsi egin dela eta ikasle kopurua gutxitu egin dela uste du Conchak. Ikasleak euskara ikastera bultzatze dituenak ere kezkatzen du Concha, lan postu bat lortzeko ikasten baitute askok euskara.

9. Dendarian euskara ikasten

- **Erref:** AB-138/019
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Herriko euskararen berrezkurapenerako dendariak eta zerbitzuak euskalduntzea beharrezko ikusten dute. Dendaria zen ikasle batekin bizi izandako anekdota kontatzen du Conchak.</p>

10. Ahizpa itota hil zen Ulibarri Ganboan

- **Erref:** EIB-021/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:00:32. **Bukatu:** 00:02:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak

Laburpena:

Zazpi anai-arreba izan ditu, haietako bat urtebetekin hil zen. Edurne, ahizpetako bat, Santixau egun baten ito zen Ulibarri Ganboan beste zortzi lagunekin.

11. Aita, udal txistularia izan zen Eibarren

- **Erref:** EIB-021/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Familia eta harremanak

Laburpena:

Bergaran jaio arren, eibartarra sentitzen da. Udal txistulari eta uren administrari postua lortu zuen aitak Eibarren eta nahiz eta beste zazpi herritan ere plaza lortu, Eibar aukeratu zuen 15 egunero Bergarara joan eta ama bisitatzeko.

12. Aitaren ibilerak gerra garaian

- **Erref:** EIB-021/005
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra hasi zenean, Torrelavegara joan ziren eta aita Eibarko Udalarekin Santanderrera joan zen. Gerra bukatu aurretik bueltatu ziren, familiakoak baserrira eta aita Eibarrera. Udaletxera ez zen bueltatu eta kartzelaz libratu zen, mediku falangista batek egin zion ziurtagiri bati esker. Aita Bergarara bueltatu zen amaren etxera eta karlista batzuen lantegian lan egin zuen Soroluzen. Orbea fabrikari jubilatua zen.

13. Aita udal txistularia izan zen

- **Erref:** EIB-021/006
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:05:39. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gerra ostean, aita ez zuen gehiago txistulari bezala lan egin baina etxean jotzen zuen eta ikasle batzuk ere izan zituen. Irakasle gogorra zen. Bizitza guztian pena izan zuen ez zuelako gehiago txisturik jo kalean. Gerra aurretik, ostegunetan eta igandetan bandak jotzen zuen plazan eta piezen artean trikitixa egoten zen eta aita bertan jotzen zuen.

14. Euskara irakasle 25 urtez

- **Erref:** EIB-021/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

"Sabado inglés"-a ezkondu eta gero ezagutu zuen. Ezkondu aurretik lantegian lan egin zuen eta egunean 12 ordu egiten zituzten lan. Ezkondu eta gero, euskarazko klaseak ematen hasi zen. Burgoseko ikasle bati buruzko kontuak.

15. Ez du euskararik gabeko Euskal Herri bat nahi

- **Erref:** EIB-021/008
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:09:03. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Kontxaren ustez, alferrik da euskara ikasten egotea, kalean ez bada erabiltzen. Ez du euskararik gabeko Euskal Herria bat nahi.

16. Gerra aurretik Eibarren dena euskeraz

- **Erref:** EIB-021/009
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Gerra aurretik Eibar guztiz euskalduna zen eta sozialistek euskara gehiago egiten zuten abertzaleek baino. Sozialistek hitanoz hitz egiten zuten. Abertzaleek klase sozial altuagoa zuten, ikasketak kanpoan egiten zituzten eta gaztelania dotorea erabiltzen zuten, herriko gainontzekoengan konplexua sortuz, gehienbat emakumeengan. Gerraostean, Eibarren zegoen kobratzailearen emaztearekin (Kontxaren irakasle izandakoa) izandako eztabaida kontatzen du.

17. Inguruko erromeria eta dantzaldi guztietara joaten ziren

- **Erref:** EIB-021/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:14:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Ostegun eta igandetan egoten zen dantza plazan. Beti inguruko herrietako erromerien zain egoten ziren. Behin Soraluzetik oinez bueltatu behar izan ziren.

18. Gerra aurreko Eibarko musika-kiosko ederra

- **Erref:** EIB-021/012
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:14:46. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Eibarren, Astelena frontoian erromeria edo dantzaldiak egoten ziren, baina egun berezietan (Urte berri egunean, gaztañerren...) bakarrik usten zieten joaten. Gerra aurretik, Untzagako plazan zegoen musika kiosko ederrean jotzen zuen aita. Oso kiosko dotorea da.

19. Garai bateko eta gaur egungo Eibar

- **Erref:** EIB-021/013
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:16:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai bateko eta gaur eguneko Eibar. Gaur egun etxe itsusiak egiten dira, modernoak direlakoan. Modarekin eta janzkerarekin berdina gertatzen dela uste du.

20. Ibarkurutzea nolakoa zen I

- **Erref:** EIB-021/014
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra aurretik Ibarkurutzea nolakoa den kontatzen du. Alondiga zegoen gaur egun Banco Gipuzcoano dagoen eraikinean. Gerra garaian eraikina obretan zegoenez hura izan zen zonaldeko babeslekua. Baltraneko dendan panpinak saltzen zituzten, Franconeko oihal-denda bat ere bazegoen... Rialto zinema geroago egin zen

21. Ibarkurutzeko iturriak jatorriz bi kanoi, ez lau

- **Erref:** EIB-021/015
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:20:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Ibarkurutzeko iturria jatorriz bi kanoikoa zen, lau zuhaitzekin apainduta. Geroago "cuatro cañales" bezala deitzen ziotela entzun zuen eta ...etakitto! aldizkarian idatzi zuen, iturriak jatorriz bi kanoi zituela azalduz. Gaur egun dagoen iturria gerraostekoa da. Estreinu zenean, Donostiakin musika-banda bat etorri zen.

22. Ibarkurutzea nolakoa zen II

- **Erref:** EIB-021/016
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:20:23. **Bukatu:** 00:22:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Ibarkurutzea nolakoa zen: Franconeko oihal-dendaren parean, Don Eugenio

abadearen etxe dotorea zegoen. Don Eugenioren abesten zioten kanta abesten du. Ibarkurutzetik Errebaleruntz zeuden dendak: Bonetaren farmazia, janari-denda, uhalgilea ("guarnizionerua"), ikatzduna, Petra frutadenda, etxeko elektrotresnen den+da eta "Cafe Europeo". Agustinen komentua zegoen aurrerago eta paseatzeko leku ederra zen.

23. Gerra aurreko dendak eta tabernak

- **Erref:** EIB-021/018
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:22:11. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Trokaboneko zubia gaur egungo San Agustin kalean zegoen. Beste zubi bat zegoen "Mantxeoko" kafetegiaren ondoan. Lanpara-denda bat ere bazegoen, gerran erre zena. Denda txiki asko zeuden: Amalianekua, Aritxuleta... Berdura Plaza ederra zen. Gerra aurretik, Ibarkurutzean Alejoneko taberna zegoen, gerra ostean Patxi Txikineko taberna deitua eta gaur egun Iturri. Beste aldean, Baskaranekuan taberna, Tunelpe eta Juanita "arrainduna"-ren taberna.

24. Garai aurreko Ibarkurutzeko tabernak

- **Erref:** EIB-021/019
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:24:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Eskolara lehenengo Alondigara joan zen eta gero Jardiñetara, orain institutua dagoen lekura. Orduan eskola nazionalak ziren eta urtebetez ikasi zuen hor, gerra hasi zen arte.

25. Arraindegi kalea

- **Erref:** EIB-021/020
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:24:38. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Birjiñape kalean astoak lotzen zituzten. Arraindegi kalea Areatzatik hasten zen eta hor kunbua zegoen ("Katardi kunbua"). Arraindegi kalean, txapa batekin ordaintzen zuten ogia. Kaleak parrokian zuen amaiera. Estanko bat zegoen eta abade bat bizi zen bertan.

26. Barrenkale kalean gizonezkoentzat komun publikoak zeuden

- **Erref:** EIB-021/021
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:26:06. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Barrenkalean, Ubideako Don Juan Ibargutxi abadea bizi zen. Kortse-denda bat zegoen eta gizonentzat komun publikoak.

27. Kontzeju Zaharra

- **Erref:** EIB-021/022
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Parrokiaren parean Kontzejua zegoen, garaiko udaletxea. Polizia bertan zegoen. Gerrako bonbardaketan suntsitu zuten. Beste eraikin batzuei su eman zitzaien.

28. Ardantza gerra aurretik

- **Erref:** EIB-021/023
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Gerra aurretik, Birjiñapetik Dos de Mayo kalera zegoen jaitsiera. Bertan erreka zabalik zegoen eta Ardantzara pasatzeko zubi bat zegoen. Ardantzan txokolategia zegoen. Margarita Murgizuk pianoa jotzen zuen eta kaletik entzuten zioten. Garai bateko Eibar askoz politagoa zen.

29. 1963an hasi zen euskara irakasten

- **Erref:** EIB-021/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:28:53. **Bukatu:** 00:30:58

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

1963an hasi zen euskara klaseak ematen Kulturean, Jabier Zubiaurren bitartez. Lehenengo ikasleen kontuak. Behin komisiarioa agertu zen, bertan zer egiten zuten galdezka.

30. Udaletxeko langileak euskara batuan trebatzen

- **Erref:** EIB-021/026
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

AEKn lan egin zuen bitartean, udaletxean ere klaseak eman zizkien bertako bederatzi langileei. Berez euskaldunak ziren eta euskara batuan trebatzen ziren.

31. Kultureko euskarazko gau eskoletako lehenengo irakasleak

- **Erref:** EIB-021/027
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:32:08. **Bukatu:** 00:32:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Kulturean egunero ematen zituen euskarazko klaseak arratsalde. Gero AEKn, astean bitan. Kulturean berarekin batera hasi ziren beste irakasleak: Edurne Mujika, Libe Sarasua eta Xabier Zabaleta. Jabier Zubiaurrek izan zuen ideia baina denborarik ez zuen klaseak emateko.

32. Imanol Laspiur

- **Erref:** EIB-021/028
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:32:52. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Imanol Laspiur, Kontxaren anaia izan zen eta 1961ean atxilotu zuten eguna gogoratzen du, agertzen ez zenez parte ematera joan zirelako. Heriotza-zigorra ezarri zitzaion baina Juan XXIII-aren bitartez zigorra barkatu zitzaion. Poliziak Imanoli egindako torturak.

33. Imanol Laspiur: euskaltzale amorratua eta urgazlea

- **Erref:** EIB-021/029
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:36:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Imanolek prestatu zituen Eibarren euskara batua irakasteko materialak. Bera eta Serafin Basaurik prestatu zituzten orduko gau-eskoletako irakasleak.

34. Arakama abadearekin, klandestinoki euskaraz alfabetatzen

- **Erref:** EIB-021/031
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:38:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Arakama izeneko abade batek euskarazko alfabetatzea irakatsi zien Imanol Laspiurri eta beste 8 lagunei, 50. hamarkadan. Frankismo garaian euskaraz egitea debekatu zenean, jende askok etxean ere euskaraz egiteari utzi zion, baina beraiek ez. Euskeraz egiteari buruzko hausnarketa.

35. Atentzioa deitzen Imanol deitzeagatik eta ez Manuel

- **Erref:** EIB-021/032
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:38:32. **Bukatu:** 00:39:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gerraostean, 50. hamarkadan-eta, gaztelania asko entzuten zen kaletik. Hotel Comercio-ko jabearekin, Kontxaren amak eztabaidan izaten zituen, semeari Imanol deitzeagatik, Manuel beharrean. Beste askok, euskarazko izenak gazteleratu zituzten.

36. Zorrozkailua zer zen ez zekien

- **Erref:** EIB-021/034
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Eibarko ikastola sortu zenean, behin andereño bat gaixotu eta ordezkapena egin zion. Kontxak oraindik ez zekien euskara batuaz hitz egiten eta ume bat hurbildu zitzaion, beste batek zorrozkillua ("zorrozkillua") kendu ziolako. Berak ez zuen zorrozkillu hitza ezagutzen.

37. Kalean eibarreraz egin behar da, ez euskara batuan

- **Erref:** EIB-021/035
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:42:17. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskarazko klaseak Deportiboan eta Kulturean ematen ziren. Orduan hasi zen euskara indartzen Eibarren. Berak beti esaten die ikasleei, euskara batua idazteko dela baina kalean eibarreraz (edo tokian tokikoa) egin behar dela.

38. Eibarko euskara

- **Erref:** EIB-021/036
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskalki guztiak dira politak eta ez dago euskara itsusirik. Pakita Mendibarrek esaten zuen eibartarrak unibertsalak direla, denekin ulertzen direlako. Elgoibarko eta Soraluzeko euskarak.

39. Eibartarra izateaz harro

- **Erref:** EIB-021/037
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:47:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Eibartik kanpo ez du inoiz inon bizi nahi izan. Eibarren baino hobeto, inon. Eibarren esaten dez esamolde bat ekartzen du gogora: "Eibarrek kaixo zatarra daka, baina txorixak kantarixak". Bilboko alkateari entzun zion behin esaten, eibartarrak eta bilbotarrak antzekoak zirela.

40. Ezin euskalduna eta espainola izan

- **Erref:** EIB-021/039
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:48:11. **Bukatu:** 00:49:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskara eta politika ez dira nahastu behar. Alderdi bat edo beste egon gobernuan, denak euskaldunak izan eta sentitu beharko lirateke.

41. Gerran fusilatutako abade "gorriak"

- **Erref:** EIB-021/041
- **Iraupena:** 0:06:04. **Hasi:** 00:51:56. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Oso gutxi joaten da elizara, baina ez dago ados Aita Santuak hartutako erabakiekin. Gorriak hil zituztenak kanonizatu zituen eta abade gorriak ez, nahiz eta hauek ere elizatarrak izan. Horrelako jarrerak, Kontxa elizatik aldentzera eramaten dute.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com